

aek
23.korrika

ALBISTEAK

2023/12/15



C1

MAILA

Badator 23. KORRIKA!

Harrotasunez! Klean da KORRIKA-KANTA!

aek
23.korrika

**HARRO
HERRI**



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

Kalean da 23. KORRIKA-kanta: *Harro herri*

- Hemen behean, kantan parte hartu duten artista batzuk ezagutuko dituzu. Adi irakurri, eta hiru datu faltsu topatuko dituzu:

Mursegó (Maite Arroita Jauregi Aranburu; Eibar, 1977)

Folk- eta pop-abelsari bizkaitarra da, eta 23. Korrika-kantaren sortzaile eta zuzendari artistikoa; (1), ahotsetako bat ere jarri du.

Hainbat talde eta bakarlariren musikari izan zen (.... (2), Anari, Lisabö, Xabier Montoia, Ama Say...), (3) 2009an bakarkako lehenengo diskoa kaleratu zuen arte. Bere diskoetan, kantatu (4), txeloa, pianoa, ukelelea, autoharpa, xilofonoa, stylophonea, melodikoa, txirula, kalimba, erreklamuak eta perkusio txikia ere jotzen ditu, musikari osoa (5) erakusgarri.

.... (6), filmetarako soinu-bandak ere egiten ditu.

Ospetsuena "Akelarre" filmerako egindakoa izan zen; (7), 2021ean jatorrizko musika onenaren Goya saria irabazi zuen lan horregatik, Arantzazu Callejarekin batera.



Irudia (AEK): kantaren aurkezpena (Mursegó, ezkerretik bigarrena)

Beste talde eta abelsari (8) ere aritu izan da (9). 2017an, (10), Ibon Rodriguezek ekoiztutako % 100 Oion proiektuan kolaboratu zuen, (11) oiondar askok parte hartu zuen. (12), aurretik, Harkaitz Cano pop-kantari ezagunarekin jardun zuen, baita Iban Urizarrekin ere.

Kau Kori Kura (Mikel Aizpurua; Ordizia, 2015)

Pop errealista egiten du, Ritxar Gomezekin batera.

2015ean hasi zen kantu bereziak YouTubera igotzen, eta (13) hainbat disko kaleratu ditu.

Abestien hitzak errealistak dira, hona hemen abesti horien izenburu batzuk: *Errauskailua*

Txillidalekun, Atez-ahate, Barbie ETBn (eta non dago Ken?), Atun burusoil, Pollo-e...

IbonRG (Ibon Rodríguez García; Sestao, 1978)

Musikari eta kultura-eragile euskalduna da.

Ibonek hainbat musika-.... (14) jotzen ditu. Bakarkako saioetan inprobisatu egiten du: ahotsaz esperimendazioak egiten ditu, pianoa lagun. Disko-ekoizle lanak (15) egiten ditu.

Iturria: eu.wikipedia (moldatuta)



► Azpimarra itzazu forma zuzenak:



1. gainera / ganean / aitzitik
2. besterik gabe / besteak beste / bestetik
3. eta / harik / harik eta
4. izan ezik / ez ezik / ezean
5. den / dela / delako
6. Horrez gain / Gainetik / Ordea
7. hots / edonola ere / izan ere

8. batzugin / batzuekin / batzurekin
9. elkarlanean / elkar / besteak beste
10. esateko / esaterako / esanda
11. --- / non / non eta
12. Hala / Alabaina / Beraz
13. dagoeneko / honezkero / dagokionez
14. tresna / tresnak / tresnek
15. ere bai / ere / baita

Harro herri (kanta)

Harro¹ herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Bagara!

Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Plazara!

Harro herri
 Hona gu euskaldunak
 Euskararen lagunak
 Hats² eta³

Herri harro
 Sarean (e)ta kalean
 Bihotza pil-pilean
 Tik-tak, tik-tak, tik-tok

Mingainaz mingaina
Mintzairaz mintzaira⁴
 Lurrarekin batera
⁵

Ku kukulumuxu⁶
Ko-ko kokoriko⁶
 Euskararen sarea
 Ez da eroriko

Mingainaz mingaina
Mintzairaz mintzaira
 Hizkuntzakekin⁷
 Aberasten dira

Ku kukulumuxu
Ko-ko kokoriko
⁸
 Edo afoniko

Harro herri korrika
(errepika)

Ahoa bizi-bizi
 Prest belarriak
 Eskuz esku heldurik
⁹ eztarriak

Argazki bat ipini
 lasterka egina
 Bihotz, muxu,¹⁰
 Nik bai eragina!

Mingainaz mingaina...
Ku kukulumuxu...
Mingainaz mingaina...
Ku kukulumuxu...
(errepika)

Onlineko txatean
 Ez zirri ez mirri¹¹
 gorputzenean¹²
 ikimilikikirri

Esku bat nirea
 Bestea zurea
¹³
¹⁴ gurea

Ikasten bazabiltza
 Egin gurekin
¹⁵ ulertu arte
¹⁶ (e)ta¹⁶

Hizkuntzak ikastera
 Bagoaz kanpora
 Zergatik ez herrian
 Euskara ahora

Harro herri korrika
(errepika bi aldiz)

Ez badigute ematen,
 arrazoia guri
 Su emango diogu,
 haienari¹⁷



HIZTEGITXOA:

Lagunduko diguzu kanta eta hiztegitxoa osatzen?

¹ HARRO: bere buruaz lotsatzen ez dena

² HATS: arnasa, hasperen

³ : gorputzetik botatzen dugun likido usaintsu eta gazia

⁴ MINTZAIRA: hitz egiteko modua

⁵ : bueltaka

⁶ KUKULUMUXU, KOKORIKO (sinonimoak dira): oin puntetan ibili

⁷ : hitz egiten duen pertsona

⁸ : barre handia egiten, karkailaz

⁹ : eztanda egin

¹⁰ : euskaldunon oihu ezaguna

¹¹ ZIRRI-MIRRI EGIN: laztandu

¹² : ez hotz, ez bero

¹³ : eskua eman, agurtzeko edo adostasuna adierazteko

¹⁴ : izateko

¹⁵ : nik zu eta zuk ni

¹⁶ : ahalegindu, jarraitu

¹⁷ : maila altuko arau

AUKERAK:

EPEL, IRRINTZI, IZERDI, JIRA
 ETA BIRA, HIZTUN, LEGE, EMAN
 BOSTEKOA, IZAN DADIN,
 ALGARA BATEAN,
 LEHERTU, ELKAR, EKIN

ERRONKA: baietz errepikak buruz ikasi!

FITXA TEKNIKOA:

Zuzendari artistikoa eta musikaria: *Mursego* (Maite Arroitauregi Aranburu).

Parte hartu duten talde eta musikariak: *Ibon Rg, Ibil Bedi, Kau Kori Kura, Aida Torres, Marié Bidart, Asier Ituarte, Garazi Zabaleta, Urretabizkaia Txaranga*

Letra: Amaia Astobiza

Grabazioak: Oihan Lizaso (Noisestudioa)

PROZEDURA:

- ▶ Aurtengo KORRIKaz zer dakiten galdetuko diegu¹.
Nahiago baduzu, KORRIKaz zer dakiten jakiteko, **Kahoot bidezko txapelketa**² egin dezakete.
- ▶ Bideoa³ ikusi, eta komentatu egingo dugu: *zer egin zenuten zuek 22. KORRIKAn?*
- ▶ Eskola girotzeko, **KORRIKari lotutako lexikoarekin jolasa** egin dezakezue (ikus 5. or.).
- ▶ Korrika-kantarik gogoratzen ote duten galdetuko dugu. Gogoratzen badute, kanta dezatela gogoratzen duten zatiren bat...
- ▶ Aurtengo kanta jada aurkeztu dela esan, eta bideoklipa³ ikusiko dugu eskolan.
- ▶ Zer iruditu zaien komentatu, eta utziko diegu kantariez eta bideoklipetan agertutako pertsonez zer dakiten esaten.
- ▶ Biografiak irakurri, hiru datu faltsuak atzeman eta hutsuneak bete beharko dituzte (2. or.).
- ▶ Talde handian zuzenduko dugu.

ERANTZUN ZUZENAK (HIRU DATU FALTSUAK):

1. Eibartarra eta bizkaitarra? Bai, Eibar mugan-mugan dago, baina oraindik ere Gipuzkoa da! Eta **Mursegoren eibartarra da; beraz, gipuzkoarra**.
2. Harkaitz Cano, pop-kantaria? Ez, bada! **Harkaitz Cano idazle ezaguna da**; edonola ere, bai, Mursegorekin elkarlanean aritu izan zen, 2015ean, Porto proiektuan.
3. Zer da pop errealista? Ibonen **abestien izenak benetakoak direla kontuan hartuta, pop surrealista egiten** duela esan beharko genuke: "atun burusoil"!?

ERANTZUN ZUZENAK (HUTSUNEAK):

1. gainera; 2. besteak beste; 3. harik eta; 4. ez ezik; 5. den; 6. horrez gain; 7. izan ere; 8. batzuekin; 9. elkarlanean; 10. esaterako; 11. non; 12. Alabaina; 13. dagoeneko; 14. tresna; 15. ere.

- ▶ Kantaren letra emango diegu eta hiztegitxoak zein kanta osatu beharko dute (3. or.).
- ▶ Horretarako, hutsuneak betetzeko tarte bat utziko diegu: banaka, lehenik; binaka, ondoren.
- ▶ Zuzentzeko, kanta⁴ entzungo dugu berriro. Letra osoa 6. orrialdean duzue.

ERANTZUN ZUZENAK:

3. IZERDI; 5. JIRA ETA BIRA; 7. HIZTUN; 8. ALGARA BATEAN; 9. LEHERTU; 10. IRRINTZI; 12. EPEL; 13. EMAN BOSTEKOA; 14. IZAN DADIN; 15. ELKAR; 16. EKIN; 17. LEGE.

- ▶ Solasaldia egingo dugu: kanta gustatu zaien, zein KORRIKA-kanta gustatzen zaien gehien, zein musika-estilo duten gustuko, euskal musika entzuten ote duten, zein euskal musikari edo talde duten gogoko. Nahi izanez gero, hemen dituzue edizio guztietako KORRIKA-kantak:
<https://www.argia.eus/albistea/korrika-abesti-guztien-bilduma>
- ▶ Erronka botako dugu: ea zeinek ikasten duen buruz aurtengo kanta! Edo errepikak!
- ▶ **Badok.eus** ezagutzen ez badute, gunea aurkezteko aprobetxa dezakegu uena.
- ▶ Musikazaleak badira, proposa dezakegu bakoitzak gustuko kantari baten aurkezpena presta dezala, Korrikakoak eredu hartuta. Gelako **(euskal) kanten Top10 zerrenda** egiten ere saia gintezke.
- ▶ Amaitzeko, **23. KORRIKA: HARRO HERRI Spota** ikusi eta komentatuko dugu:
<https://www.youtube.com/watch?v=V1cEdW5ZyYA>
- ▶ Nahi badute, **eskolan egindakoa erreparatzeko**, etxean online ariketa ere egin dezakete (bertan, ariketa gehiago ere izango dituzte: <https://korrika.h5p.com/content/1292120977175836127>)

¹ **AEK zer den** azaltzeko aprobetxa dezakegu nahi izanez gero. Horretarako, esteka hau bidaliko diegu:
https://www.youtube.com/watch?v=3kzfLoVO3Ag&list=PLQ7B3QXOhR_WEVdRu9LqpiQpMQTOraI_S&index=2

² **Zer dakizue KORRIKaz? B1-C1** <https://create.kahoot.it/details/a51ff30c-36a2-44d4-b502-a0da6c7c8c30>

³ Girotzeko **bideoa**: "22. KORRIKA: HitzEkin, baina hitzik gabe! **Mila esker, Euskal Herria!**"
https://www.youtube.com/watch?v=c3HwYZ_os3o

⁴ **HARRO HERRI (23. KORRIKAREN abestia eta bideoklipa)**
<https://www.korrika.eus/eu/abestia> eta <https://www.youtube.com/watch?v=wXRJVFng4Ug>

ESKOLA GIROTZEKO JOLASA: KORRIKA-LEXIKOA



- ▶ Eskola girotzeko, jolas bat egingo dugu; horretarako, ikasleak binaka jarriko ditugu.
- ▶ Ikasleei hitz bana emango diegu (moztu beheko fitxak).
- ▶ Helburua izango da ikaskideek hitzak asmatzea.
- ▶ Arau bakarra dago: hitza bera ezin izango da esan, ezta "erro" berekoak ere.
- ▶ Txandaka, kontzeptuak adierazi beharko dituzte, bakoitzari egokitu zaionaren arabera: ahozko azalpenak emanez, imintzioka edo arbelean marratzuz (moztu beheko fitxak).
- ▶ Ikasle bakoitza bere bikotekideak asma dezan ahaleginduko da: hari begira egingo du lan, baina denak jolastuko dira; beraz, hitza lehenen asmatzen duen bikoteak eramango ditu puxtarriak.
- ▶ Amaitzean, puxtarri gehien dituen bikoteak irabaziko du.

(HITZA) AHOZ AZALDU Festa	(HITZA) IMINTZIOKA ADIERAZI Arduradun	(HITZA) MARRAZTUZ ADIERAZI Lelo
(HITZA) AHOZ AZALDU Korrika Batzorde	(HITZA) IMINTZIOKA ADIERAZI Lekuko	(HITZA) MARRAZTUZ ADIERAZI Korrika furgoneta
(EKINTZA) AHOZ AZALDU Lagundu	(EKINTZA) IMINTZIOKA ADIERAZI Bultzatu	(EKINTZA) MARRAZTUZ ADIERAZI Zain egon
(EKINTZA) AHOZ AZALDU Omendu	(EKINTZA) IMINTZIOKA ADIERAZI Parte hartu	(EKINTZA) MARRAZTUZ ADIERAZI Korrika egin
(EKINTZA) AHOZ AZALDU Antolatu	(EKINTZA) IMINTZIOKA ADIERAZI Ondo pasa	(EKINTZA) MARRAZTUZ ADIERAZI Euskaraz hitz egin

Harro herri (kanta)

Harro¹ herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Bagara!

Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Plazara!

Harro herri
 Hona gu euskaldunak
 Euskararen lagunak
 Hats² eta izerdi

Herri harro
 Sarean (e)ta kalean
 Bihotza pil-pilean
 Tik-tak, tik-tak, tik-tok

Mingainaz mingaina
Mintzairaz mintzaira³
 Lurrarekin batera
 Jira eta bira

Ku kukulumuxu⁴
Ko-ko kokoriko⁴
 Euskararen sarea
 Ez da eroriko

Mingainaz mingaina
Mintzairaz mintzaira
 Hizkuntzak hitzuneekin
 Aberasten dira

Ku kukulumuxu
Ko-ko kokoriko
 Algara batean
 Edo afoniko

Harro herri korrika...
(errepika)

Ahoa bizi-bizi
 Prest belarriak
 Eskuz esku heldurik
 Lehertu eztarriak

Argazki bat ipini
 lasterka egina
 Bihotz, muxu, irrintzi
 Nik bai eragina!

Mingainaz mingaina...
Ku kukulumuxu...
Mingainaz mingaina...
Ku kukulumuxu...
(errepika)

Onlineko txatean
 Ez zirri ez mirri⁵
 gorputzen epelean
 ikimilikikirri

Esku bat nirea
 Bestea zurea
 Eman bostekoa
 Izan dadin gurea

Ikasten bazabiltza
 Egin gurekin
 Elkar ulertu arte
 Ekin (e)ta ekin⁶

Hizkuntzak ikastera
 Bagoaz kanpora
 Zergatik ez herrian
 Euskara ahora

Harro herri korrika...
(errepika, bi aldiz)

Ez badigute ematen,
 arrazoia guri
 Su emango diogu,
 haien legeari

**HIZTEGITXOA:**

¹ HARRO:
 bere buruaz lotsatzen ez dena

² HATS: arnasa, hasperen

³ MINTZAIRA:
 hitz egiteko modua

⁴ KUKULUMUXU, KOKORIKO
 (sinonimoak dira):
 oin puntetan ibili

⁵ ZIRRI-MIRRI EGIN: laztandu

⁶ EKIN: ahalegindu, jarraitu

FITXA TEKNIKOA:

Zuzendari artistikoa eta musikaria: *Mursego* (Maite Arroitauregi Aranburu).

Parte hartu duten talde eta musikariak: *Ibon Rg, Ibil Bedi, Kau Kori Kura, Aida Torres, Marié Bidart, Asier Ituarte, Garazi Zabaleta, Urretabizkaia Txaranga*

Letra: Amaia Astobiza

Grabazioak: Oihan Lizaso (Noisestudioa)

